

7-FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzen, bezeroengana iristen, haiekin harremanak izatean eta diru-sarrerak sortzen.

Gure enpresak giza baliabideak, fisikoak, intelektualak eta finantzazkoak behar ditu.

- **Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**
 - Hainbat ONG-ren elkarlana berrerabiliko ditugun materialak lortzeko.
 - Esperimentu lanetan kualifikatuak dauden pertsonak behar ditugu gure zapaten zolak, eraginkor egin ditzaten jasotako plastikoa erabiliz.
 - Gure talde barruan ezinbestekoak ditugu zapataren planteamendua egiteko diseinari grafikoak.
 - Hauek ekoizteko enpresekin lan egin beharko dugu.
 - Premiazkoa da ere proiektua burutzeko gune bat izatea.
 - Herrietan banatuko ditugun edukiontziak behar ditugu, jendeak hor bota dezan beren oinetako zaharrak edo puskatuak, hauek erabiliko baititugu ere gure zola berrerabiliak sortzeko.
 - Dirua oso beharrezkoa da ere enpresa bat hasteko.

Baliabide ukigarri (lehen aipatutakoak) zein ukiezinak ditugu derrigorrezkoak.

Ukiezinen barruan hauek daude:

- Zapatak lantzearen esparruan esperientzia duten langileak.
- Kontaktuak ONG edo elkarte ezberdinekin zein bezeroekin (azken honetarako, web-orriaz baliatuko gara batez ere).
- Abilezia ezberdinak gure artean (proiektua gestionatzeko gaitasuna, hau da, ekimena; sormena; komunikabide berriekiko erabilpen jakinaren gaitasuna; orokorrean eta jendaurrean hitz egiteko eta modu egokian adierazteko gaitasuna...).
- Gure arteko elkarlana, hau da, sinergia on bat lortzea proiektuaren beharrezko elementu guztiak eta bakoitzaren gaitasunak modu aipatutakoak batzeko edo kontsolidatzeko.